

LIBURUTEGIEN 2005 BULETINA Euskal Sistema

Ondorengo buletinak 2004-2005 denboraldian Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzuak aurrera eramandako jarduera batzuk hartzen ditu kontutan.

Lehen argitalpen honekin, eta Euskadiko liburutegi publikoekin batera, Zerbitzu honek garaturiko jardueren zabalkunde bide berri bat hastea nahi dugu, eta aldi berean, liburutegi publikoetako profesionalen zentro ezberdinetan aurrera eramaten ari diren jarduera eta esperientzia berrien ezagutza handiago bat ahalbiderrazten duen eremu bat irekitzea. Hau guztia, sektoreari buruzko informazio trukea eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko asmotan.

Oraingo honetan, buletinak "EAEko liburutegien zerbitzuen diseinu estatistikoa, datu bilketa eta analisia" azterketan lorturiko emaitzak aurkezten ditu, azterketaren helburua 2004. urtean EAEko liburutegi publiko-

en zerbitzuen egoera aztertzea izan delarik, hau da, bere ezaugarri, erabilera eta aprobetxamendua, baita hauek gizartean duten oihartzuna ere, zerbitzu hauen eskaintza eta prestazioak hobetzeko helburuarekin.

Gainera, EAEko Irakurketa Publikoaren Mapa eraiki eta diseinatzeko bideratua izan den azterketa estatistikoa-
ren osagarria den beste azterketa baten erreferentziak aurkezten dira.

Jarraian aurkeztu diren azterketen osaketan liburu-
zain eta liburutegi publikoetako gainerako langileek eskaini duten laguntza eskertzen dugu eta espero dugu eremu berri honek euskal liburutegien errealitatea hobeto ezagutzeko aukera ematea.

Arantza Arzamendi Sesé
Kultura Ondarearen zuzendaria

LIBURUTEGIEN EUSKAL SISTEMA KULTURAREN EUSKAL PLANEAN

Kulturaren Euskal Kontseiluak (KEK), 2000. urtean sortu zenetik, euskal kulturako eragile publiko eta pribatuen topaleku bihurtu nahi izan du. Bere helburu nagusia lankidetzaz bul-tzatzea eta kultur eremu euskal-dun bat egituratzea da, gero eta globalizatuagoa den ingurunean.

Bere lan egitasmoaren funtsezko osagaia, oinarrian dagoena, Kulturaren Euskal Plana dinamizatzea da. Plan horrek EAEn euskal kulturaren gainean ikuspegi estrategikoei, jarduera irizpideei eta lehenetsiei buruz eragile publiko eta pribatuen arteko adostasuna islatu nahi du.

Planak 2004-2015 urteetarako hainbat ardatz estrategiko, jarduera lerro eta ekintza ezar-tzen ditu. Hurrengo urteetan aurrera eramango diren eta Liburutegien Euskal Sistemari erlazioaturiko ekintzak "Kul-tur ondarea eta bere balio-katea sustatzea" 4. ardatz estrategiko-an daude kokaturik eta sektore horretarako ondorengo ekintzak zehazten dira:

- Euskal liburutegien sistema antolatzeaz arduratuko den erakunde bat sortu eta horrek bere garapen-ildoak finkatu (2004-2005).
- Liburutegien Euskal Sistema eta Sarea zehaztu, egituratu eta garatu (2004-2005).
- Liburutegien Euskal Kontseilua sortu (2005).
- Liburutegi digitala garatu (2005-2006).
- Sektoreko ordezkarien partaidetzarekin Liburutegien Legea egin (2004-2005).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOAREN SAREAREN ESTATISTIKAK

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzua 1999an hasi zen, estatistika-informazioa jasotzen. Era horretan, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalan dauden liburutegi publiko-
ei buruzko datu esanguratsuenak jaso dira.

Helburu nagusia, era zehatz batean, Euskadiko liburutegi publikoen egoera ezagutzea da, hau da, hauen ezaugarriak, erabilerak eta onurak, baita hauen gizarte oihartzuna ezagutzea ere, zerbitzu hauen prestazio eta

eskaintza hobetzeko helburuarekin.

Urtez urte, Liburutegi Zerbitzuak liburutegiko arduradunekiko elkarrekintza prozesuak hobetzea eta nazioarteko joerei egokitzeko informazio eremu berriak gehitzea nahi du. Zentzu honetan, 2004. urtean eginitako analisiak, liburutegiko arduradunekin eta EAEko udal-
letako kultura zinegotziekin eginitako hiru lan bilera barne hartzen ditu. Deialdi honen arrazoiak proiektuaren helburuak, lan faseak, metodologia eta liburutegi publiko bakoitzean

bilduriko informazioa (aldagaiak, adierazleak...) aurkeztea izan da, eta definitiboki arduradunei nolabait sentsibilizatzea beraien parte-hartzea garrantzitsua dela. Honela, Euskadiko udal liburutegien %92,5aren parte-hartzea lortu da.

Bestalde, 2004. urtean lanearako lerroetan sektoreko¹ eta nazioarteko entitateetako gomendioei egokituriko informazio eremu berriak sartu dira, eta honek beste herrialde edota autonomia erkidego batzuen analisi konparatiboa egitea ahalbideratuko du.

EMAITZEN ANALISIA

2004. urteko estatistikan parte hartu zuten liburutegien kopurua 259koa da eta presentzia oso garrantzitsua dute 3.000 biztanle baino gutxiago eta 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako zentroek.

Azterketa estatistikoan lorturiko zifrek erakusten dute udal liburutegietako bibliografia-funtsak guztira 3.600.000 inguru direla. Bildumetako euskarri



dokumentalen hazkuntza dibertsifikatua nabaritzen da, nahiz eta liburuak eta liburuxkak izan ugarienak (funts guztiaren %86,7a). Dagoen funts guztiaren %4,4a ikus-entzunezko dokumentuek osatzen dute.

Liburutegiko funts guztien laurden bat gutxienez euskaraz-

ko materialek osatzen dute, eta nagusiki helduei zuzenduriko gaiez eta fikziozko gaiez osatuta dago Erosketa bibliografikoak 2004. urtean zehar 228.237 unitatekoak izan dira; hau da, 2004. urteko funtsen %6,4a. Behintzat, 2004. urtean erositako hiru unitatetik bat euskarazko euskarrian dago

BIBLIOGRAFIA-FUNTSEN BANAKETA BIZTANLERIA KOPURUAREN ARABERA. 2004 URTEA. OINARRIA 259 LIBURUTEGI

PARTE HARTU DUTEN UDAL LIBURUTEGIEN BANAKETA BIZTANLERIA KOPURUAREN ARABERA. 2004 URTEA. OINARRIA 259 LIBURUTEGI



1. Horrela, adibidez "Liburutegi publikoen zerbitzuaren garapenerako IFLA/UNESCO-ren jarraibideak. 2001"; ISO 2789 araua (Liburuzain eta informazioaren profesionalen datu estatistikoak jasotzeko eta aurkezteko jarraibideak ematen dituen nazioarteko araua), etab.

Termino ebolutiboetan eta 2003. urteko informazioari dagokionez, azken urte honetan %21,5eko igoera eman da funtsen kopuruan; eta euskarri

motaren arabera, ikus-entzuzko dokumentuak izan dute hazkuntza erlatiborik handiena %59arekin. Dokumentu elektronikoa, bibliografia-

funtsekin batera, dira hazkuntza erlatiborik baxuena izan dutenak: %12,8 eta %14,7ekin, hurrenez hurren.

ERABILTZAILEAK ETA MAILEGU-ZERBITZUAK

2004. urtean zehar 4.627.134 bisitari zenbatu dira guztira elkarrizketaturiko 259 liburutegietan, urte bete lehenago lorturiko bisitarien antzeko kopurua delarik. Urtearen bukaeran 2004. urtean zehar izena emandako erabiltzaileak guztira 58.000 baino gehiago izan dira. Hauetatik %46a erabiltzaile helduak dira eta %26a haurrak dira. Inskribaturiko gainerako erabiltzaileak ezin izan dira banakatu sailkapen horretan (parte hartutako liburutegien zati batean ez da definitu). Sexuaren arabera sailkatutako inskribatutako 10 erabiltzaileetatik sei emakumezkoak dira.

Udal liburutegietan 2004. urtean zehar mailegatutako dokumentuak guztira 2.342.438 dira. Kopuru honetatik, %65,3a (guztira 1.530.349) liburuei dagokie, %15a ikus-entzuzko

dokumentuei eta %14,7a soinudun dokumentuei.


Elkarrizketaturiko udal liburutegien %43ak liburutegien arteko mailegu zerbitzua eskaintzen dute, guztira 2.986 mailegu zenbatzen direlarik. Liburutegien arteko mailegua, oinarrian, EAEko liburutegien artean egiten da, jaso edota emandako dokumentuen %6a soilik Espainiako edota nazioarteko liburutegien artean egin da.

Salako zerbitzua eskaintzen duten liburutegiak 54 direla egiaztatu da. Urte horretan, guztira 192.568 kontsulta egin dira gelan, horietatik ia %2a bakarrik ez da konpondu liburutegien zerbitzuen aldetik.

Garrantzitsua da azpimarratzea udal liburutegien aldetik egiten diren eta izaera paraleloa duten

KULTUR JARDUEREN BANAKETA MOTAREN ARABERA. 2004 URTEA. OINARRIA 259 LIBURUTEGI

Besteak (nobedadeen gidak edo irakurketa gidaren edizioak...) 44,9%



kultur jarduerak. 2004. urtean zehar 4.000 jarduera baino gehiago egin dira, bereziki ipuinaren orduak eta irakurketaren animazioak, hau da, haurrei zuzenduriko jarduerak

BERRIAK

Irakurri: Kulturaren Euskal Planaren barnean EAEko biztanle guztien artean irakurketa eta Euskadiko liburutegi publikoen erabilera sustatzeko Irakurri kanpaina abian jarri da. Xede-publikoa zabala da eta horregatik irakurketa ohitura, adin, bizitza kultur interesen arabera edo biztanleen gizarte-inguruaren arabera ekintza zehatzak diseinatu dira,

Liburutegi Zerbitzuaren helbide berria: 2005. urteko abuztuan Zerbitzu honen web-orria Euskadi.net-era pasa zen, Eusko Jaurlaritzako sailetako web-orrien prestakuntza eta mantentze lanetarako Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritzak ezarritako arauak jarraituz. Aldaketa hau aprobeztatuz, edukiak berregituratu dira, liburutegien profesionalaren, oharren edo liburutegiak prentsan bezalako atal berriak sartuz.

Euskaraz kontsultak egiteko:

<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4878/eu/>

Gaztelera kontsultak egiteko:

<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4878/es/>

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzua, Tolon azaroaren 17tik 19a bitartean ospatuko den Gaztela-Mantxako II. Liburutegien Jardunaldian parte hartzeko gonbidatua izan da, "Euskadiko liburutegi publikoen sarea linean: lankidetzarako lanabesa" komunikazioa aurkezteko.

Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiak orain gutxi Euskal Ondare Bibliografikoaren I. Mintegiko edukiei buruzko txostena argitaratu du. Sancho el Sabio Fundazioa. Vitoria-Gasteiz, 2003ko abenduak 10 eta 11. I. edizioa. Vitoria-Gasteiz. 2005

LIBURUTEGIETAKO EKIPAMENDUA: AUTOMATIZAZIOA

EKIPAMENDUAK DITUZTEN LIBURUTEGIAK ETA EKIPAMENDUA DUTEN LIBURUTEGIEN EHUNEKOA GUZTIAREKIKO. 2004. URTEA. OINARRIA 259 LIBURUTEGI


	Ekipamendu hauek dituzten liburutegiak	Guztiaren arabera ekipamendu hauek dituzten liburutegien %
Internerako sarbidea	223	86,1
Irudi irakurgailuak	44	17,0
Soinu irakurgailuak	50	19,3
Mikroformen irakurgailuak	22	8,5
Telebistak	53	20,5
Ondare digitala	25	9,7
Web-orria	43	16,6
OPACa web-ean	75	29,0
Z39.50 zerbitzaria	74	28,6

Liburutegi bakoitzeko batez beste 5,5 ordenagailu daude la egiaztatu da (guztira 1.427 ordenagailu), 1,74 inprimagailu, 0,95 fotokopiagailu eta 0,44 eskaner. Ekipamendu informatikoari dagokionez esan hiru ordenagailuetatik bi jendearen erabilera eskusiborako direla. Erabilera publikorako dauden ordenagailuen %80 Internetera konektaturik daude, barne erabilerarako edo izaera pribaturako ezarririk dauden ordenagailuen artean Interneti konektaturikoak %92a osatzen duten bitartea

Elkarrizketaturiko liburutegien erdiak OPACa dute, 2004. urtean 555.085 kontsulta egin ziren.

GIZA BALIABIDEAK

LIBURUTEGIETAKO LANGILEEN BANAKETA KATEGORIA PROFESIOALEN ARABERA. 2004. URTEA. OINARRIA 259 LIBURUTEGI



EAEko udal liburutegien 2004. urtean guztira 582 lagunek lan egiten zuten, bereziki A eta B taldeetako liburuzaina nabarmentzen dira (70 lagun) eta C, D eta E taldeetako liburutegiko laguntzaileak (321 lagun). Hala ere, aipatzekoa da 60 langile enpresa pribatuetakoko langileak direla

Langileen zati handi batek lanaldi osoan egiten du lan liburutegietan (parte hartu duten liburutegien %58a). 2004. urtean udal liburutegietan lan egin duen langileen kopurua lanaldi osoan 447

langile izatearen baliokidea izango zen; 1,72 langile liburutegiko. Nagusiki, 36 eta 45 urte bitarteko emakumeek osatzen dute langileria.

2004. urtean zehar, giza baliabideen %39ak prestakuntza jardueretan parte hartu zuen, bereziki informazio eta komunikazio teknologia berriei (Internet) erlazionaturiko ikastaroak nabarmentzen dira eta sektoreari zuzenki lotutako aplikazioei buruzko ikastaroak (Absysnet); eta baita animazio soziokultural eta katalogazioari buruzko ikastaroak ere.

ETORKIZUNEN ERROKAK:

EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOAREN MAPAREN ERAIKUNTZA

Irakurketa Mapa lanerako tresna bezala hartzen da eta era dinamikoko batean lurralde jakin batetako liburutegien sistema ezagutzeko aukera ematen du. Tresna honek liburutegiak dimentsionatu, eboluzioa analizatu eta ebaluatzeko aukera ematen du, eta informazio honetan oinarrituz, beraien etorkizunaren garapena planifikatu. Lurralde

antolamendurako tresna bezala ulertzen da.

Azterketaren helburu nagusia EAEko Liburutegi Publikoen Irakurketa Mapa garatu eta diseinatzea da. Maparen eraketan Koldo Mitxelena Kulturunea, Araba eta Bizkaiako Foru Aldundietako liburutegiek parte hartzen dute.

Zehazki, helburu nagusi hau

ondorengo helburu instrumentaletan zehazten da:

- Irakurketa mapak eratzeko, gertuko inguruneetan ezarritako parametroak analizatu eta egiaztatu.
- EAEko liburutegien oinarriko dimentsionamendurako parametroak definitu/ezarri.
- Egungo euskal liburutegien errealitateari definituriko estandarra aplikatu.